



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA
BATXILERGOKO, LANBIDE HEZIKETAKO ETA HIZKUNTZEN
IRAKASKUNTZAKO IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAREN
UNIBERTSITATE MASTERRA**

JARRAIPEN AUTOTXOSTENA

Zentroko Batzordearen
onarpen data: 2024/03/15

www.ehu.eus



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzaren Unibertsitate Masterra Máster Universitario en Formación del Profesorado de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato, Formación Profesional y Enseñanzas de Idiomas
Goimailako Online Institutua Goimailako Online Institutua

INDIZEA

1. Titulazioaren informazio orokorra
2. Aldaketak, gomendioak eta hobekuntzak
3. Jarraipenerako adierazleak
4. Hobekuntza-ekintzen titulazio plana
5. Balorazioak

1. TITULUAREN INFORMAZIO OROKORRA

MEC kodea: 4311844GOI

Atxikitze eta emate
ikastegia:

Goimailako Online Institutua / Goimailako Online Institutua

Tituluaren webgune instituzionala:

eu: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/irakasleen-prestakuntza-masterra>

es: <https://www.ehu.eus/es/web/master/master-formacion-profesorado>

Ikasleei eskainitako webguneko informazio publikoari buruzko gogoeta laburra:

Masterrari buruzko informazioa bi webguneren bitartez eskaintzen dugu: UPV/EHUko webgunea eta GOI ikastegiaren webgunea. Modalitate erdi-presentzialean eskaintzen diren 3 espezialitateei buruzko informazioa bietan topatuko du interesa daukanak.

Dena den, GOI ikastegiaren webgunean badira UPV/EHUko informazioa osatzen eta zabaltzen duten zenbait atal:

- Izena-emateko formularioa eta matrikulazioa burutzeko pausoak.
- Ikasturteko egutegia eta aurrez aurreko saioak.
- Praktikak: egutegia eta hurrengo ikasturterako plazen eskaintza.

Izen-ematea GOI ikastegiaren webgunetik soilik egin daiteke. Masterrari buruzko informazioa bi webguneetan eguneratuta dagoela zaintzen dugu nahasterik izan ez dadin.

GOI ikastegiaren webgunea:
<https://www.goi-institutua.eus/>

2. ALDAKETAK, GOMENDIOAK ETA HOBEKUNTZAK

2.1 EGIAZTATUTAKO TITULUAN EGINIKO ALDAKETAK

Tituluaren aldaketa	Justifikazioa / Emaitzak
---------------------	--------------------------

2.2 KANPOKO AGENTZIEK TITULUEI EGINIKO GOMENDIOAK

Tituluaren gomendioa	Erantzuna
----------------------	-----------

2.3 EGINDAKO HOBEKUNTZA EKINTZAK

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Ikasle-txartelak Masterra abian jarri genuenetik izan ditugu arazoak ikasle-txartelekin: ikastegi atxiki gisa, ez dugu izan txartelak ikastegian bertan bideratzeko gailurik (eskanerrik) eta EHUK ez digu zehaztu izan ze fakultate edo ikastegiren bidez eskatu genitzakeen. Azkenik, HEFA fakultatearekin hitz egin eta adostasunera iritsi gara, 2022-23 ikasturteak hasita, txartelak bertako masterreko idazkaritzatik bideratu ahal izateko.	2022-23 ikasturtean, GOI ikastegiko ikasleentzako prozedura zabaldu da ikasle-txartela idazkaritza birtualetik eskatu ahal izateko: 1) eskaerak urriak 30 bitarte jaso dira, 2) ondoren HEFA fakultateko idazkaritzan bideratu, inprimatu eta azkenik 3) ikasleek Markeskuako egoitzan jaso ahal izan dituzte. Elkartutako dokumentazioa: - Ikasle-txartelaren eskaera orria

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Arduradun-postua: Administrazioa Jatorria: Beste batzuk	
Bibliografia lantzeko gida Bibliografiaren gida APA-7ra eguneratu da. Arduradun-postua: MAL arduraduna Jatorria: Beste batzuk	Masterraren testuinguruan aurkeztu behar diren lanetarako bibliografia gida eguneratu da, APA-7 arauak kontuan hartuta. Gidak honako puntuak azaltzen ditu: * Bibliografia bat landu eta ematearen garrantzia. * Gure lanean iturrien erreferentziak ematea. * Bibliografia lantzean kontuan hartu behar diren elementuak. * Bibliografia lantzeko tresnen erabilgarritasuna. * Bibliografia eredu bat (APA 7). Elkartutako dokumentazioa: - Bibliografia lantzeko gida
EHU Master Week UPV/EHUK antolatutako Master Week azoka birtualean parte hartu dugu. Arduradun-postua: Zuzendaria Jatorria: Beste batzuk	Azoka birtualean, Irakaskuntza Masterraren online modalitateari buruzko informazioa jarri dugu eta bi hitzalditan parte-hartu, martxoaren 6an eta 7an hurrenez-hurren. Hitzaldiak bideokonferentzia bidez izan dira eta interesatuek ahoz eta/edo txat bidez parte-hartu ahal izan dute. Horrez gain, txat-bidez zalantzak argitzeko kanala ere zabaldu da.
Ate irekiak Irakaskuntza Masterrari buruzko saio birtual ireki bat antolatu da, masterraren ezaugarriak azaldu eta interesatuen zalantzak argitzeko. Arduradun-postua: Zuzendaria Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak	2023ko martxoaren 28an, saio birtual bat antolatu genuen Irakaskuntza Masterrari buruz. Ordubeteko saioan, online modalitatearen ezaugarriak, antolaketa akademikoa, Berrikuntza Ikasgelan hautazko ibilbidea eta praktikaldiaren ezaugarriak azaldu genituen. Lehenbiziko aldiz antolatu dugu ate irekien saioa, parte-hartze altua izan du eta Batzorde Akademikoak balorazio positiboa egiten du.
Datuak biltzeko baimenen eta irudi-eskubideen kudeaketa Master Amaierako Lana (MALa) egiteko prozesuan eta ibilbidean, datuak edota irudiak bildu behar izaten dira maiz, eta ezinbestekoa da informazio hori guztia behar bezala jasotzen dela eta datuen babeserako legea errespetatzen dela bermatzea. Horiek behar bezala kudeatzeko baimen berezien eta irudi-eskubideen kudeaketaren inguruko gida laburra sortu da. Arduradun-postua: MAL arduraduna Jatorria: Beste batzuk	Master Amaierako Lana egiteko prozesuan eta ibilbidean baimen berezien eta irudi-eskubideen kudeaketari dagozkion irizpideak jasotzen dituen dokumentua sortu da (behin-behinekoa) eta baita horri dagozkion baimen-eskera ereduak ere. Dokumentuak ondoko irizpideak hartzen ditu aintzat: * Jabetza intelektual * Galdetegi, inkesta eta elkarrizketa anonimoak: errespetuzko baimen-eskaerak * Irudi-eskubideak eta izendun elkarrizketak: izendun baimen sinatuak Azalpen orokorrak jasotzen dituen dokumentuaz gain, ikasleak kasuan-kasu bete beharreko dokumentu-ereduak ere jarri dira eskura. Hobekuntza ekintza honek, MALaren garapenean datuak edo irudiak biltzeko prozedura bakar eta adostu baten beharrari erantzuten dio. Elkartutako dokumentazioa: - Baimen-ereduak eta eranskinak - Master Amaierako Lanak: ikerketa egiteko baimen berezien eta irudi-eskubideen kudeaketa

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Orientazio saioa 2023ko ekainean, masterrean plaza lortu zuten ikasleekin, orientazio-saioa antolatu genuen. Espezialitateetako tutoreek gidatuta, hautazkoen aukeraketari, matrikula-aukera ezberdinei eta modalitate-erdi presentzialaren lan-dinamikari buruzko azalpenak eman ziren. Arduradun-postua: Batzorde Akademikoa Jatorria: Beste batzuk	Ekainak 28an, masterrean plaza berretsi eta matrikula egin aurretik, ikasleentzako saio birtuala burutu genuen. Helburuak: * Espezialitateetako tutoreekin lehen harremana ezartzea * Modalitate erdi-presentzialaren eredu pedagogikoa eta lan-dinamika ezagutzea * Matrikula aukeren berri ematea Formatua: * Online saioa Saioaren gidariak: Ainhua Latatu (Giza eta Gizarte Zientziak), Uxo Iñurrieta (Hizkuntza eta Literatura) eta Josu Lopez-Gazpio (Natur Zientziak eta Matematika).
Irakasleen formazioa eta aholkularitza online irakaskuntzan 2022/23 ikasturteko erronka "UEUren online irakaskuntzarako irakasleen formazio eta aholkularitza pedagogikoaren plana" abiatzea izan da. Plana hiru alditan edo lan-saiotan banatzen da: (F1) Harrera plana eta online irakaskuntzarako hasierako formazio saioa (APE) Aholkularitza Pedagogikoa (F2) Online irakaskuntzarako sakontze formazio-saioa Arduradun-postua: UEU: Aholkularitza Pedagogikoa Jatorria: Aurreko ikasturteko hobekuntza-ekintzen planetik eratorriak	2021-22 ikasturtean abiatutako formakuntza-planaren jarraipen eta hobekuntza da aurten proposatu eta egindakoa. Xehetasunak elkartutako dokumentuan. Elkartutako dokumentazioa: - Formazioa online eredu
Formakuntza-saioa hezkuntza berrikuntzan 2023ko uztailaren 6an, hezkuntza-berrikuntzari buruzko formazio-saio irekia antolatu genuen UEUko udako ikastaroen baitan. Jardunaldiaren izenburua: "Berrikuntza hezkuntza-marko berrian: ikasteko egoerak gorpuzten, Euskal Curriculum ardatz" Azalpen laburra: Hezkuntza-sistemen, hezkuntza-eremuen eta hezkuntza-prozeduren trantsizio-une batean gaude. Aldaketa-aldi hori ardatz hartuta, eta Euskal Curriculum ipar hartuta, Bigarren Hezkuntzako esparruari begirako gogoeta-gune bat eta elkartrakerako gune bat sortu nahi dugu jardunaldi hauetan, hezkuntza-marko berriaren ardatz jakin bat langai izango duena: ikasteko egoerak. Arduradun-postua: UEU: Aholkularitza Pedagogikoa Jatorria: Beste batzuk	UEUren udako ikastaroen baitan, 10 orduko formazio-saio presentziala izan zen Eibarko egoitzan. Saioaren helburuak: * Hezkuntza-marko berriak proposaturiko ikasteko egoerak diseinatzeko prozedurak eta baliabideak partekatzea, Euskal Curriculum ardatz izanda. * Ikasteko egoeretan euskal kultura zehar-lerro izan dadin har daitezkeen bideez gogoeta egitea. * Ikasteko egoerak diseinatzean hezkuntza-markoaren zehar-lerro hauek euskal dimentsiotik nola txertatu pentsatzea: hezkidetzeta eta kompetentzia digitalak. * Ikasteko egoerak euskal dimentsioaren begiradatik diseinatzeko baliagarriak izan daitezkeen proiektuak eta praktikak ezagutzea. Jardunaldiari buruzko xehetasunak: https://www.ueu.eus/jarduera-akademikoa/1909-berrikuntza-hezkuntza-marko-berrian-ikasteko-egoerak-gorpuzten-euskal-curriculum-ardatz



3. ADIERAZLEAK JARRAIPENERAKO

1. PLAZA ESKAINTZA ETA ESKAERA	2022/2023	2021/2022	2020/2021	2019/2020
Plaza eskaintza Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 30.0	132	132	120	
Ikasle berrien matrikula izen ematearen arabera Lim. sup: Lim. inf:	132	132	121	
Sarbidea ikasketetara ESPAINIAKO UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	132	131	121	
Sarbidea ikasketetara EGHE UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0	0	0	
Sarbidea ikasketetara EGHEtik KANPOKO UNIBERTSITATE TITULUA Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	0	0	0	
Ikasle berrien matrikula lehenengo aukeran Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	89	130	69	
Denbora osoko matrikula duen ikasle berri kop. Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	108	102	107	
Denbora partzialeko matrikula duen ikasle berri kop. Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 0.0	24	29	14	
Ikasle berrien matrikula lehen mailan: ingelesa Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 10.0	0	20	11	
Ikasle berrien matrikula lehen mailan: euskara Lim. sup: 132.0 Lim. inf: 30.0	132	131	121	
Atzerriko ikasle berrien matrikula Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0	2	1	0	
Tituluaren okupazioa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	100.00	99.24	100.83	
Tituluaren lehenespina Lim. sup: Lim. inf:	0.70	0.70	0.58	
Tituluaren egokitzapena Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	67.42	99.24	57.02	
Ikasle bekadun kop.: emakumeak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	27	35	9	
EJ eta MEC deialdietako ikasle bekadun kop.: emakumeak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	27	34	9	
UPV/EHU deialdietako ikasle bekadun kop.: emakumeak * Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	0	1	0	
Ikasle bekadun kop.: gizonak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	9	14	0	
EJ eta MEC deialdietako ikasle bekadun kop.: gizonak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	9	13	0	
UPV/EHU deialdietako ikasle bekadun kop.: gizonak * Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	0	1	0	

2. IKASKETA	2022/2023	2021/2022	2020/2021	2019/2020
Errendimendu tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	98.44	97.10	96.76	

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.



Arrakasta tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	99.40	98.57	99.03	
Ebaluazio tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	99.04	98.51	97.71	
Egresatuak Lim. sup: 120.0 Lim. inf: 0.0	133	107	97	
Efizientzia tasa (egresatuen errendimendu tasa) Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	98.44	99.03	94.49	
Gogobetetze maila irakaskuntzarekin Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0		4.00	4.00	
Sarrera ikasturtearen datuak	2020/2021	2019/2020	2018/2019	2017/2018
Ikasketen uzte tasa 1. urtean (CURSA) Lim. sup: Lim. inf:	1.65			
Sarrera ikasturtearen datuak	2021/2022	2020/2021	2019/2020	2018/2019
Graduazio tasa Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0	97.06	94.39		

3. MUGIKORTASUNA *	2022/2023	2021/2022	2020/2021	2019/2020
Bidalitako ikasleak guztira Lim. sup: Lim. inf:		0	0	
Bidalitako ikasleak: ERASMUS Lim. sup: Lim. inf:		0	0	
Bidalitako ikasleak: BESTE PROGRAMA BATZUK Lim. sup: Lim. inf:		0	0	
Etorritako ikasleak guztira Lim. sup: Lim. inf:		0	0	
Etorritako ikasleak: ERASMUS Lim. sup: Lim. inf:		0	0	
Etorritako ikasleak: BESTE PROGRAMA BATZUK Lim. sup: Lim. inf:		0	0	

4. MASTERRA IRAKASTEN DUTEN IRAKASLEAK	2022/2023	2021/2022	2020/2021	2019/2020
4.1 Profesorado de la UPV/EHU				
Seiurteko kop. Lim. sup: Lim. inf:			2	
Bosturteko kop. Lim. sup: Lim. inf:			1	
DOCENTIAZ bidez ebaluatutako IRI kop. Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioiko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.



Ikasle DOB / IRI DOB ratioa (adierazlea zentroari dagokio, ez titulazioari) Lim. sup: 80.0 Lim. inf: 0.0	19.16	17.53	12.93	
Irakasleen egonkortasuna (IRI iraunkorra) Lim. sup: 100.0 Lim. inf: 0.0		50.00	100.00	
Irakasleak (kopurua) Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	1	2	4	
Irakasleak: emakumeak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	1	2	2	
Irakasleak: gizonak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	0	0	2	
Irakasle doktoreak (kopurua) Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	1	1	4	
Irakasle doktoreak: emakumeak Lim. sup: 50.0 Lim. inf: 0.0	1	1	2	
Irakasle doktoreak: gizonak Lim. sup: Lim. inf:	0	0	2	
4.2 Profesorado externo a la UPV/EHU				
Kanpoko irakasleen seiurteko kop. Lim. sup: Lim. inf:	4	2		
Kanpoko irakasleen bosturteko kop. Lim. sup: Lim. inf:	11	6		
Kanpoko irakasleak (kopurua) Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	25	21	19	
Kanpoko irakasleak: emakumeak Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	15	12	12	
Kanpoko irakasleak: gizonak Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	10	9	7	
Kanpoko irakasle doktoreak (kopurua) Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	17	13	14	
Kanpoko irakasle doktoreak: emakumeak Lim. sup: 40.0 Lim. inf: 0.0	9	6	9	
Kanpoko irakasle doktoreak: gizonak Lim. sup: 30.0 Lim. inf: 0.0	8	7	5	

	Sustapenaren urtea			
5. LANERATZEA (promozioen datuak) **	2019	2018	2017	2016
Egresatuen gogobetetzea Lim. sup: 10.0 Lim. inf: 0.0				
Enplegu tasa Lim. sup: Lim. inf:				
Enplegu tasa: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
Enplegu tasa: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				
Langabezia tasa Lim. sup: Lim. inf:				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Langabezia tasa: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
Langabezia tasa: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua: emakumeak Lim. sup: Lim. inf:				
% enplegu bideratua: gizonak Lim. sup: Lim. inf:				

* Azken ikasturtean adierazlerik erakusten ez bada, txostena egiteko aldian SIIUk datuak baliozkotzeko prozesua amaitu ez duelako da.

** Adierazle hauen erreferentziako biztanleria LANBIDEko inkestari erantzun dioten promozioeko egresatuen kopurua da. Erantzun kopurua 5 edo gutxiago bada, datuen babesa dela eta, ez dira emaitzak ematen.

Adierazleetatik atera daitezkeen ondorioen azterketa laburra:

OHARRA: Jarraipen adierazle horiez gain, tituluaren beste adierazle batzuk ditu ikastegiak bere Kalitatearen Barne Bermerako Sistemak.

Indarguneak

- * Izen-emate kopurua jaitsi den arren, oraindik plaza kopuruaren oso gainetik.
- * Irakasleen errendimendu eta arrakasta tasa altuak.
- * Lanean ari den jendearentzako edo bestelako arrazoren batengatik egunero klaseetara bertaratu ezin denarentzako modalitate egokia: ordutegi malgua eta norbere erritmora egokitzen dena.
- * Masterraren ezaugarrietara egokitutako online eredu pedagogikoa.
- * Berrikuntza Ikasgelan hautazko ibilbide praktikoa, ikastetxeko egonaldia luzatu eta berrikuntza-egitasmo errealak bertatik bertara aztertzeke aukera ematen duena.

Hobekuntza-arloak

- * Berrikuntza Ikasgelan ibilbidea ikasleek oso modu positiboan baloratu arren, matrikulazio garaian kosta egiten da ibilbidea ondo azaltzen.
- * Irakasle doktoreen kopurua handitzeko plangintza espezifiko beharrezkoa.
- * Hautazkoen eskaintza mugatua zenbat espezialitatetan.

4. TITULUA HOBETZEKO EKINTZA PLANA

4.1 TITULUEI EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Tituluaren aldaketa	Justifikazioa / Emaitzak
---------------------	--------------------------

4.2 TITULUEI EGIN BEHARREKO GOMENDIOAK

Tituluaren gomendioa	Erantzuna
----------------------	-----------

4.3 TITULUEI EGIN BEHARREKO HOBEKUNTZAK

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Derrigorrezko jarraipen-saioetara bertaratzea Irakaskuntza Masterrean 6 dira derrigorrezko jarraipen saioak: * Masterraren aurkezpena (aurrez aurrekoa) * DILAN defentsa (aurrez aurrekoa) * Practicum I. mintegia (saio sinkronoa online) * Practicum II. mintegia (aurrez aurrekoa) * Practicum III. mintegia (saio sinkronoa online) * MAL defentsa (aurrez aurrekoa) Ikaslea atzerrian dagoelako, azken orduan gaixotu delako edo lana dela tarteko, bertaratzeke ezintasuna adierazten duten eskaerak jasotzen ditugu ikasleengandik. Saiotara ez bertaratzeke arrazoiak justifikatua izan behar du kasu guztietan, baina justifikazio hori aurkezteko prozedura eta epeak berrikusi behar ditugu modu egokian erantzun ahal izateko. Horrekin batera, ordezkoko lan edo jarduera gisa zer proposatuko den zehaztu behar da kasu bakoitzean. Arduradun-postua: Idazkari akademikoa Jatorria: Beste batzuk Exekuzioa egiteko aurreikusitako data: 2023/09/29	2023-24 ikasturterako proposatzen den prozedura orokorra ondokoa da: * Jarraipen saiora ezin etorriaren arrazoiaren eskaera idatzi. * Eskaera justifikatzeko behar den dokumentazioa bildu. * Eskaera agiria eta eskaera justifikatzen duten dokumentu guztiak pdf dokumentu bakarrean jaso. * Eskaerak egiteko epeak zehaztu. * Eskaerak epea amaitu eta 10 laneguneko epean ebatziko dira.
Kopiak, plagioak eta jardunbide ez etikoak: prozedura ebatzi Kopiatzea eta plagiatzea zilegi ez dela eta zigorrak dakartzala arautegiak jaso arren, beharrezko ikusten da jarraibide esplizituak ezartzea bizitza akademikoan etikaz eta zintzotasunez jokatzeko, eta, ebaluazio probetan eta lan akademikoetan kopia, plagio edo iruzurak detektatuz gero, nola jokatu ebazteko. Arduradun-postua: Idazkari akademikoa Jatorria: Beste batzuk Exekuzioa egiteko aurreikusitako data: 2024/05/17	

Tituluaren hobekuntza	Hartutako neurriak (analisiak, emaitzak eta ebidentziak/adierazleak)
Master Amaierako Lanen biltegia UEUren gordailu digitalaren baitan (DSpace), Irakaskuntza Masterreko ikasleen MALak jaso, antolatu eta erakutsiko dituen biltegi digitala osatzea. Arduradun-postua: MAL arduraduna Jatorria: Beste batzuk Exekuzioa egiteko aurreikusitako data: 2024/06/14	

5. BALORAZIOAK

GOI ikastegiak Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterraren hirugarren edizio honen balorazio positiboa egiten du. Zenbakietara ekarrita, 132 plaza berri eskaini dira eta, guztira, 175 ikasle izan dira 22/23 ikasturtean, 132 matrikula berriak eta 43 aurreko ikasturteetatik etorriak. Matrikula-motari dagokionez, 104 matrikula osoak izan dira (%59,4) eta gainerako 71ak partzialak (%40,6). 135 ikasle izan dira practicumean eta 145 MALarekin. Emaitzei dagokienez, ikasleen %89,7k matrikulatutako irakasgai guztiak gainditu ditu, eta 132 izan dira masterra amaitu eta titulua lortu dutenak. Irakasle gisa 30 lagunekoa taldea aritu da, 26 kolaboratzaile eta 4 irakasle propio.

